



LABen oharra:

Zoritxarrez, gure hirian azkar loratzen ari diren gero eta frankizia gehiagorekin gertatzen den moduan, esplotazioak definitzen du Bilboko Foster's Hollywoodeko kudeatzaileen jarrera.

Kaleratuak izan ondoren, Bidebarrietako Foster's Hollywoodeko langileek erabaki zuten, epaitegien bidez dagokien guztia exijitzeaz gain, jasaten zituzten lan-baldintzak publikoak egitea. Horretarako, ekimenak egin dituzte kate berdinak Bilbon irekita duen beste jatetxearen aurrean, Gran Vian, euren kontratuetan agertzen diren denboralitatea, partzialitatea eta kategoria benetakoak ez zirela salatzeke. Gainera, langile askok hizkuntza eta lan-eskubideak ez ezagutzea are eta gehiago zukutzeko erabiltzen zituen zuzendaritzak, langileak etengabeko gutxiespen eta umiliazioetara kondenatuz. "8 familia kaltetuta" edo "Ez gara borrokan egiteaz nekatuko" bezalako mezuak irakur zitezkeen langileek egindako mobilizazioetan.

Gertakari larrienak pasa den martxoaren 8an izan ziren, Greba Feministaren testuinguruan, langile baten amak kudeatzaileen dei bat jaso zuenean, "ez dakizu non sartzen zaren" adierazten ziona. Beranduago, kartelak aurkitu zituen bere etxeko atean, frankizia erabiltzen duen ohiko etiketatuaz jarriak, eta beste batzuk familiaren postontzia trabatzen zutenak. Kartelok jarri zituzten pertsonak edo pertsonak portaleko ate bikoitza zeharkatu behar izan zuten. "Zuen kaka garbitzeaz kokoteraino", "16 familiaren ogiarekin jolasten ari zarete" edo "gerra nahi baduzue, edukiko duzue" bezalako mezuak agertzen ziren karteletan. Hurrengo egunean, antzeko zerbait gertatu zen beste langile baten etxe-inguruetan.

Jarrera mafioso honek gainditu egiten du lan-esparrua esparru, pertsonala inbadituz. Hala ere, langileek berretsi egiten dituzte euren jarrera eta aldarrikapenak, arrazoi gehiago ematen baitie aurrera urrats bat eman eta kikilduko ez dituztela argi utzi eta euren duintasuna defendatuko

ditela oihukatzeke.